| JANTOKIKO ARAUAK ETA ZENTZUZKO ONDORIOAK<br>GOIZEKO IZARRA IKASTOLA<br>HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA | |
|---|---|
| **ARAUAK** | **ZENTZUZKO ONDORIOAK** |
| • Haur Hezkuntza 12:15etan joango da bazkaltzera. Lehen Hezkuntza 12:30etan joango da bazkaltzera. | • **Lehen Hezkuntza:** Behin eta berriro berandu heltzen banaiz (10 minutu justifikaziorik gabe), bazkaldu ondoren mahaiak garbitzen geldituko naiz. |
| • Jangelara modu egokian sartu eta eseriko naiz. | • **Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza:**Txanda pasa egiten badut, azkena jarriko naiz. Behin eta berriro errepikatzen badut aste osoan azken sartuko naiz. |
| • Janaria jateko eta ura edateko soilik erabiliko ditut. Janaririk ez dut botako. | • **Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza 1. zikloa:**Mahaia edo lurra nahita zikinduz gero, garbitu egingo dut.<br>• **Lehen Hezkuntza 2.eta 3. zikloa.** Mahaia edo lurra nahita zikinduz gero, nire mahaia eta lurra garbituko ditut, behin eta berriro gertatuko balitz, jangela garbitzen lagunduko nuke. |
| • Txukun eta modu egokian bazkalduko dugu. | • **Haur eta Lehen Hezkuntza.** Nire jateko eragatik besteak molestatzen baldin baditut, barkamena eskatuko dut eta tokiz aldatuko naute. |
| • Garrasirik egin gabe hitz egingo dut. | • **Haur eta Lehen Hezkuntza 1. zikloa:** Garrasi egiten badut barkamena eskatuko dut, berriz garrasi egiten badut begiraleak esan arte isilik egongo naiz.<br>• **Lehen Hezkuntza 2. eta 3. zikloa:** Garrasika hitz egiten badut, bazkaldu ondoren laguntzen geldituko naiz |
| | |

| | |
|---|---|
| • Mahai-tresnak zuzen erabiliko ditut. | • **Haur eta Lehen Hezkuntza :** Puskatu edo era desegokian erabiltzen badut, arduradunari barkamena eskatuko diot, ezin bada konpondu berria ekarriko dut. |
| Jangelako langileak eta nere bazkalkideak errespetuz tratatuko ditut. | • Jarrera desegokia edo errespetu faltarik izango banu, barkamena eskatuko nuke.<br>• Hausnarketa egin eta inplikatuak begiraleekin bilduko lirateke. Gurasoak jakinaren gain jarriko genituzke. |
| • Bazkalorduan ezin da jostailurik , mugikorrik edota musika aparailuak erabili. | • **Haur eta Lehen Hezkuntza:** jostailuak eta aparailuak begiraleei emango diet bazkal ondoren bueltatzeko behin eta berriz errepikatuz gero gurasoa etorri beharko litzateke kendutakoa jasotzera. |
| • Lehen Hezkuntzan ikasleek janaria zerbitzen lagunduko diete monitoreei. | • **Lehen Hezkuntza:** Ez banuke zerbitzatuko ez dudalako nahi, ondorengo bi egunetan zerbitzatu beharko dut. |

**ARAU HAUEK BAZKALKIDE GUZTIEK BETE BEHAR DITUZTE. BETETZEN EZ DITUZTENEK OHARRA ERAMANGO DUTE ETXERA.**
**HIRU OHAR JASOTZEN DITUEN BAZKALKIDEA ASTEBETERAKO ETXERA JOANGO DA. JARRERA ARAZOEKIN JARRAITZEN BADU, EZIN IZANGO DU JANGELAN BAZKALTZEN GELDITU.**